iritzia

b.e.r.r.i.a.k z.i.r.i

EDUARDO ARROYO
Poeta



«Ekologismoak zorakeriara eraman gaitzake, erretzaileen kontrako terrorismora. Negargarria da, gero eta askatasun gutxiago dago»

EL MUNDO

BERNARDO BERTOLUCCI
Zinemagilea

«Gaur egun ez du zentzurik arauak haustea»

EL PAIS

JESUS MARIA ALKAIN
Donostiako alkate izandakoa

«Herritar batek beregana dezakeen ohorerik handiena bere herriko alkate izatea da»

EL DIARIO VASCO

ANDRES SOPEÑA
Zuzenbide irakaslea eta 'El florido pensil'-en autorea

«Oraindik faxismo handia dago hortik zehar. Bada, bi bandoetan, duela 50 urtetik ideologikoki mugitu ez denik»

DEIA

Duela 60 urte
(Abuztuak 18, 1936)

Errepublikarrak San Martzialen

Errepublikarrek Erlaitz galdu ondoren San Martzialen kanoi gehiago jarri zituzten. Errebeldeek erasoa prestatua zuten egun honetarako. San Martzial hartuz gero Irun berehala eroriko zen. Los Arcos eta Garcia Valiñoren menpe zeuden soldaduak bertara joan ziren erasoari ekiteko asmoz, baina behe-lainoa gau osoan izan zen eta Beorlegik fronte guztietako soldaduei atzera egiteko agindu zien. Mola jeneralak Donostia eta Irun ordu gutxitan hartu nahi bazituen ere, euskal lurraldeak menperatzea zailagoa zela konturatu zen, eta Francori erasorako beharrezko tresna gehiago eskatu zizkion. Euskal Herria menperatzea ezinbestekoa zen iparralde osoa hartu ahal izateko.

zuzendariari

Intsumisioa eta kito

Espainiako gobernu berriak esaten duenez, edo, hobeto esanda, Aznarrek esaten duenez, hemendik bost urtera ejerzitoa profesionala izango da eta gazteok ez dugu izango soldaduzka egiteko beharrik.

Hau guztia ipuin bat besterik ez dela iruditzen zait intsumiso guztiek kode penal berriarekin jasan beharko duten egoera ikusirik, dirulaguntzarik ez, bekarik ez, eta beste hainbat eta hainbat gauza. Horretaz aparte, gaur egun intsumisoek jasan behar izan ohi duten tratua geroz eta okerragoa dela aipatu beharrekoa da bai poliziaren aldetik, bai justiziaren aldetik. Hau guztia dela medio, noiz egingo dute politikoek behingoz zerbait intsumisoen alde? Kanpaina guztietan intsumiso hitza erabiltzea asko gustatzen baitzaie publizitate bezala besterik ez, beste era batera esanda gure botoak lortzeko.

Kanpainak bukatu ostean politiko batzuek dirua lapurtzeari ekin ohi diote; beste batzuek, ostera, ondo bizitzeari ekiten diote; bitartean intsumiso preso askok kartzeletan jarraitzen dute soldaduzkari uko egiteagatik.

Gauzak horrela, kalera irteten jarraitu beharko dugu militar nahiz politiko guztiek gure ahotsa entzun dezaten, *intsumisioa*.

• **Juanmi Alvaredo**
DONOSTIA

Tartaloren begia

XXI. mendearen atari honetan inork ez dit ukatuko irudiaren menpe dagoen munduan bizi garenik. Nork bere burua ahalik eta irudi onenarekin mantentzen ahaleginak egiten ditu, iragarkietan ugariagoak dira irudi ikusgarriak ateraldi bizkorrak baino, eta berriak berak ere irudi *adierazgarriz* janzten dizkigute hitzari itzal eginez.

Izatez, gaur egun, hala moduzko gertakariren bat den tokian ez gaitezen harritu bideozale bat kamara aurpegi aurrean duela gertakaria grabatzen ikusten badugu. Irudi horiek gero komunikabideek zabaldu ahal izango dituzte, eta baliteke bideozaleak diru sarren bat jasotzea ere (honen adibideak aurkitzeko ez daukagu urrutira joan beharrik. Aragoiko azken uholdeetan esaterako bideozale batek harturiko irudiak ikusi genituen telebistan).

Honek guztiak *bigarren mailakoak* diren berrien baztertzea dakar. Egunkari honetan bertan zenbatek irakurriko ote ditu bere begiak erakartzen dituen itxurazko argazkiak duten berriak soilik eta bazterrean dauden zutabeetako berri itsuak guztiz ahaztu?

Hau guztiau irudiaren begiez begiratzeagatik gertatzen da. Begi horiekin itxurazkoa besterik ez dezakegu ikus, baina benetan gauza bakoitzaren baitan dagoen egia ikusi nahi baldin badugu adimenaren begiez begiratu beharko dugu eta ez begi-bakarrak izan.

• **Felix Olasagasti**
LASARTE-ORIA (GIPUZKOA)

LOPEZ & PEREZ / EGIN



— Epaileak dio balitekeela Galindok dudazko jatorria duten ondasunak izatea.
— Nik diot ea badagoen inor duda egiten duena ondasun horien jatorriaren inguruan..., epaileaz aparte jakina.

Udamina

HARKAITZ CANO

Gure ñamea ez da gurea

Zer nahi duzu ba guk egitea? Hemen badugu nahiko langabezia, nahiko arazo eta nahiko komeria geure buruarekin eta, gera daitezela etxean lehoiak ehizatzen, hemen ez dago haientzako lekurik. Telebistan entzun nituen behin hitzok, Afrikatik datorren etorkin samalda dela eta. Ez dakit nola egiten duen zenbait jendek hain argia izateko. Pentsatzen hasita nago ipurtargi xehetuak esnifatzen ote dituzten argia ikusteko. Edo zer.

Etorkinak egundoko katramilak izan ondoren kanporatu, eta to, eguraldi onak animaturik edo, ehun afrikar berri dauzkagu orain axedrez jokorako peoi. Ongi dago udarako joko gisara xakea, albiste berririk ez dagoela eta, aktualitatea kontserbantea injektaturik daukaten berri zaharrek osatzen dutenean. Aktualitatea pistako bizikletarekin ibiltzen da batzuetan, baina beste batzuetan krustazeo bat bezain makal. Eta krustazeoei kontserbantea sartu behar, burua beztu egiten zaie eta bestela. Krustazeoen buru beltzak inork ez ditu gertu nahi.

Nigerian daude jada Barajaseko zeldetan *Spain is different* lemaren nolakotasuna dastatu zutenak. Han ez dute Barajaseko deliziarik inguratu ahal izango eta ñamea jatearekin konformatu beharko dute. Nigerian etnia anitz elkarbizi dira. Etnia horietako bat yorubatarrena da, eta bertako sustraidun ahoz ahoko jakiturian isurtzen den esaera bat bada afrikarrak Europara zerk bultzatzen dituen azaltzeko: *zakur bustiak, lagunik ez.* Afrika zakur busti bat da eta itxi egiten ditugu guk begiak zaunka egiten duen bakoitzean. Okerrena da geronek blaitu genuela zakurra. Bizkar bustiak, lagunik ez.

Europa paradisua ez bada ere, desparadisua ere ez da eta paradisuaren zutaberen bat topatuko dutelakoan itsasoratzen dira etorkinak. Europako ongizatearen estatua maskara bat dela konturatu gabe ordea. Gure gezurra esportatzen ari gara eta gero desesperazioak gezurraren ordainean Europara transferitzen dizkigun afrikarrak eskuburdinez lotuta bidaltzen ditugu etxera bueltan, sorbaldan kolpetxo batzu eman ondoren. Esan diezaietela tribuko besteei hemen ez dagoela lehoirik. Ez duela merezi saiatzerik.

Guk haiei bizkarra (bizkar bustia) emanez eraiki dugu silikona eta gezurrezko garito hau, eta orain Berlineko murru birtual bat ari gara altxatzen itsasoaren gainean. Gero eta gehiago izango dira gerturatuko zaizkigun afrikarrak eta orain artean legez, *roll*-en truke bitxia medio, kanibal bihurtu eta haiek jatea beste aukerarik ez zaigu geratuko. Gure gezurrak jatea, alegia. Yorubatarrek esaten duten legez, ehun zati ñame erein dituenak berrehun erein dituela badio, bere gezurrak jan beharko ditu ñamea bukatzen zaionean.

Hortxe dago gakoa. Ñamean. Gure ñamearen zati bat hartzeko eskubidea dutela haiek ere, eta iritsiko dela eguna bizkarrean kolpeak guk jasoko dituguna. Ondo merezita gainera. Ez da izango artifiziozkoa gure omenez sutuko duten piroteknia.

Nigeriako hausatarrek ere badute esaera bat: *gezurrak urtebetez egin dezake korrika, egiak egun bakarrean harrapatuko du.* Jakina baietz. Egiak ez dituela bi bide, baina bidezidorrak anitz. Eta euskaraz esaten den bezala, *gezurrak hanka motza, baina makulu ugari.* Erosotasunagatik bizi gara hipokrita hitza tatuaturik duen gezurraren kulunkaulkian. Aspaldi ikasi genuen bi punturen arteko distantziarik motzena gezur bat izaten dela. Gibraltarretik Afrikarako distantzia. Axolagabekeriaz erein ez genuen ñamearen gezurra. Ba hori.